

AURKIBIDEA

<i>Txirula eta eskua</i>	9	<i>Astoa ikusi nuen</i>	54
SI-LA-SOL	11	<i>Ardoa edanda</i>	55
<i>Katagorria</i>	13	<i>Salamankara</i>	56
<i>Dantza alai</i>	14	<i>Iluntzean</i>	58
<i>Alemaniar doinua</i>	14	<i>Arratsalde honetan</i>	60
<i>Kanta</i>	15	<i>Azken agurra</i>	62
<i>Egun on</i>	15	<i>Maitia galde egin zautan</i>	63
DO-RE	17	MI[↑]-FA[↑]-SOL[↑]-LA[↑]	65
<i>Binbili bonbolo</i>	19	<i>Haurtxo polita</i>	67
<i>Txori txiki bat</i>	20	<i>Aitorren hizkuntz zaharra</i>	68
<i>Folk doinua</i>	20	<i>Maite</i>	70
<i>Astoak ajaja!</i>	21	<i>Festarik festa</i>	72
FA-MI-RE-DO	23	<i>Hegoak ebaki banizkion</i>	74
<i>Ordularia</i>	25	<i>Euskal Herrian euskaraz</i>	76
<i>Anai Xanti</i>	25	<i>Bat, bi, hiru, lau/txapeldunak</i>	78
<i>Nire lagunaren txakurra</i>	26	<i>Nere aitak amari</i>	79
<i>9. Sinfonia</i>	27	<i>Andre Maddalen</i>	80
<i>Txaka, txaka, tx</i>	28	<i>Gizon arruntaren koplak</i>	82
<i>Uso xuria</i>	29	<i>Maritxu I (2/4)</i>	84
<i>Alferraren astea</i>	30	<i>Maritxu II (8/8)</i>	85
<i>Loiolan jai, jai</i>	32	<i>Baliaren bertsoak</i>	86
<i>Frantses euskaldun batenak</i>	34	<i>Agur jaunak</i>	88
<i>Furra, furra</i>	36	<i>When the saints go marching in</i>	89
<i>Itsasontzi baten</i>	38	<i>Nere herriko neskatxa maite</i>	90
<i>Isil-isilik</i>	40	<i>Agure zaharra</i>	92
<i>Sehaskan</i>	42	<i>Kan-kan</i>	94
<i>Ontzi txikia</i>	43	<i>Zapi txuria</i>	94
FA#-SIb-SOL#-DO#[↑]-FA#[↑]	45	<i>Minuetto I</i>	95
<i>Zorionak zuri</i>	47	<i>Egun da Santimamiña</i>	96
<i>Pintto</i>	47	<i>Eperra</i>	96
<i>Ama begira zazu</i>	48	<i>Bagare</i>	100
<i>Oh, Susana</i>	49	<i>Isiltasunaren doinuak</i>	102
<i>Maria Solt eta Kastero</i>	50	<i>Aldapeko</i>	104
<i>Amaren besoetan</i>	52	<i>Markesaren alaba</i>	106
<i>Txuriko</i>	53	<i>Ardi txuriak</i>	108



H i t z a u r r e a




Kaixo,

Guk geuk asmatutakoa izan ala beste norbaitek egindakoa izan musika gozatzeko egina da beti, eta hau ez dugu inoiz ahaztu behar. Edozein abesti jo daiteke edozein instrumentorekin eta noski txirularekin ere bai.




Txirulaz liburu honetan abesti errexagoak eta zailxeagoak aurkituko dituzu hasi hiru nota soilekin jotzeko moldatutakoetatik hirudun duoaz jotzeko modukoetaraino txirularen ikasketaren prozesuan aurrera egiten duzun eran doinu guztiak jo ahal izango duzu, gozatuz jo izan ere. Tartean arnasa hartu eta deskantsatu bitartean margoak hartu eta zure liburua kolorezta dezakezu. Zure liburua zureagoa izango da, berezia, bakarra.

Azkenik nire aita Iñaki Zabala, nire familia eta nire maisua izan zen Manolo Urbietari eskaini nahi diet **Txirulaz** beraiek emandako laguntza eta animoengatik.










EZKERRA



ESKUBIA





SI

LA

SOL



Katagorria




Musical score for the song "Katagorria". It consists of four staves of music in G major (one sharp) and 3/4 time. The lyrics are written below each staff.

Ka - ta - go - rri - go - rri - a

Ba - so - tik - e - to - rri - a

Ji - ra - ka bi - ra - ka

ka - io - la be - rri - an









Dantza alai




Alemaniar doinua



Kanta




Xabier Zabala



Egun on

Xabier Zabala






FINE




D.C.





DO



RE



Binbili bonbolo



Herrikoia



Bin-bi - li bon-bo - lo zein da lo
A - ke - rra Fran-tzi - an ba - le - go

As-to- ak kan - ta i - di - ak dan - tza


Ahun-tzak dan - bo - li - na jo





Txori txiki bat

Imanol Urbietta




Txo-ri txi - ki bat ne-ga-rrez a - ri da

FINE




txi-o txi - o - ka a-ma-ri dei - ka



goiz-e-an goiz ka-bi tik i - hes e - gin du




i-lun-tze - an ba-so - an gal-du zai - gu



txi - o txi - o





D.C.





Folk doinua



Astoak ajaja!

Imanol Urbietta






FA


MI

RE





DO



Ordularia









Anai Xanti











Nire lagunaren txakurra



9. Sinfonia




L. V. Beethoven





Txaka txaka txaka


Imanol Urbietta




Txa-ka txa-ka txa tre-na zu - bi gai-ne - tik




hau-rrak a-gur e - gi - ten lei - ho - tik



I.-Au-rre-ra be - ti e - rre-ka-ren on - do - tik



ir - ten da ge - ro tu - ne-la bar-ne - tik



u! u! u! u! u!

2

Arkumetxoak mendi tontor gainean
etxe txuriak, zuhaitzen artean.

3

Errota bat, erreka-eren ertzean
zaunka ta zaunka, txakur bat atean.



Uso xuria

Herrikoia




U - so xu - ri - a he - gan zu



gu u-tzi-rik no - ra zo - az zu



Eus - kal He - rri - ko men-di guz - ti - ak



E - lu-rrez be - te-rik di - tu - zu



gaur gau-e - ra - ko o-os-ta-a - tu



gu-u-re e - txe - an dau - ka zu-u - u



gu-u-re e - txe - an dau- ka - zu





Alferraren astea

Herrikoia



ASTELEHENA, jai ondoren alferra
ezer ez egiteko ez goaz lanera.
Ez goaz lanera, ez goaz lanera (BIS)

OSTIRALA, hagineta mina
aspirina harturik bagoaz ohera.
Ez goaz lanera, ez goaz lanera (BIS)


ASTEARTEA, euria barra barra
busti egingo gara eta ez goaz lanera.
Ez goaz lanera, ez goaz lanera (BIS)

LARUNBATA, egun erdiko lana,
egun erdiagatik ez goaz lanera.
Ez goaz lanera, ez goaz lanera (BIS)

ASTEAZKENA, osaba ezkontzen da
opor egiten dugu eta ez goaz lanera.
Ez goaz lanera, ez goaz lanera (BIS)

IGANDEA, lantegia itxita,
lan egin nahi baina, ezin joan lanera.
Ez goaz lanera, ez goaz lanera (BIS)



OSTEGUNA, amonaren eguna
ospatu nahi dugu eta ez goaz lanera.
Ez goaz lanera, ez goaz lanera (BIS)





Loiolan jai, jai

Denver/Bilintx




I

Behin batean Loiolan, erromeria zan,
hantxe ikusi nuen, neskatxa bat plazan;
txoria baino ere, arinago dantzan,
huraxe bai polita, hain polita bazan.

III

Aurkitu ginenean, inor gabe jiran,
koloreak gorritu, arazi zizkidan,
kontatuko dizuet, guztia segidan
zer esan nion eta, nola erantzun zidan.






II

Esan nion desio, senti nuen gisan,
harekin hizketa bat, nahi nuela izan,
erantzun zidan ezin, atsegin har nezan,
adituko zidala, zer nahi nion esan.





IV

- "Dama polita zera, polita guztiz, bai
baina halere zaude, oraindik ezkongai,
ezkon gaitezen biok, esan zaidazu bai",
- "Nik zurekin ezkondu, nik zurekin, jai,jai!"





Frantses euskaldun batenak



1

Frantses euskaldun bat etorri zait
ipiñitzeko bertsuak,
dekiaratuaz aren etxian
gertatu diran kasuak;
danak ez dira errexak baña
esango ditut batzuak,
argitasuna ematen badit
gure jaun amorusuak

2

Nere barrengo sentimentuak
nahi ditut adierazi,
zer estadutan gelditu naizen
inork nai badu ikasi;
izarra baiño ederragoko
andria juan zait igesi,
orain bi urte aldegin zidan
ez det geoztik ikusi.

3

ogei ta amar urte daukazkit,
oraindik franko gaztia,
eta andriak bi gutxiago,
au bizimodu trixtia
ark neri egin dizkidan gauzak
esatekuak ezta,
txurrero batek engañatuta
eraman dit emazia.

4

Bear bezela funzionatzen
ez dago errex fabrika,
lau urte pasa elkarrekin ta
ez degu izan aurrekan;
alegiñaren faltan ez daukat
kontzientziyan zorrikan,
orain Parisen txurruak saltzen
an omen dabil korrika.

5


Txurreruaren lan zenzillua
da asko irabazteko,
orrek biñipin ez du egiten
mantendu eta jazteko;
andriarekin alkar artuta
ni modu ontan uzteko
bi kristau gaizto nalkuak dira
bazter guztiyak nasteko.

6

Ni emaztiak utzi ninduen
estadu triste batian
beste batekin aldegin zidan
ainbat beretzat kaltian;
txurruak janaz ederki dabil
diruak altu artian,
zer esan bear ote dit neri
Josefatera juatian?

7

Txurrero ori zer gizona den
sinista entzun deguna
lana egiteko gogua falta
eta mingaña leguna;
bedeinkatua izan dedilla
aldegin zuten eguna,
gizarajuak arrapatu du
bere moduko laguna








Furra furra


Oskorri



FINE



D.C.



Furra, furra fandangoa,
Hortxe duzu fandangoa, geure gustukoa (bis)



Gaur goizean jeiki naiz suerte onean,
tanke bat topatu dut neure kafesnean;
ez dakit zer daukagun, bake ala gerra,
baina nik badaezpada, egin dut puskerra.

Furra furra...

zerbait egitekotan zuzen eta artez,
zorri bat garbitu dut ur-pistola batez;
orain galdurik nago, beldurrez beteta
muniziorik gabe gelditu naiz eta.


Furra, furra...

neure arma bakarra dut akordeoia,
hauspoari eraginez dirudi leoia;
eskua jaten badit on egin diezaion,
Cervantesi holakorik gertatu zitzaion.

Furra, furra...

eta orain banoa berriro ohera,
bila ez badatozkit lolo egitera;
bihar ikusiko da zer dagoen berri,
jakintsuenak ere ezin du igerri.

Furra, furra...






Itsasontzi baten...

Kaxiano

The musical score consists of eight staves of music in G major (one sharp) and 2/4 time. The notation is handwritten and includes various musical symbols such as notes, rests, and bar lines. The first staff begins with a treble clef and a key signature of one sharp. The second staff includes a first ending bracket labeled '1.'. The third staff includes a second ending bracket labeled '2.'. The fourth staff includes a '7' with a checkmark below it. The fifth staff includes a '7' with a checkmark below it. The sixth staff includes a '7' with a checkmark below it. The seventh staff includes a '3' below it. The eighth staff includes the word 'rit.' above it.





Itsasontzi baten, Euskal Herritik kanpora
naramate eta ez dakit nora (BIS)

Agur nere aman laztan goxoari,
agur nere maite politari;
ez egin negar, etorriko naiz, egunen baten pozez kantari (BIS)

Itsasontzi baten, Euskal Herritik kanpora
naramate eta ez dakit nora (BIS)


Agur senideak, agur lagunari,
agur Euskal Herri osoari;
ez egin negar, etorriko naiz, egunen baten pozez kantari (BIS)

Itsasontzi baten, Euskal Herritik kanpora
naramate eta ez dakit nora (BIS)

Agur nere aman laztan goxoari,
agur nere maite politari;
ez egin negar, etorriko naiz, egunen baten pozez kantari.

Agur senideak, agur lagunari,
agur Euskal Herri osoari;
ez egin negar, etorriko naiz, egunen baten pozez kantari.








Gora Euskal Herri Gora Euskal Herri
Gora Euskal Herriari!






Isil isilik dago

Herrikoia










goi-ze-ko or-du bi - e - tan es -
na - tu - tzen ge - ra - a a
arran-tza - li - ak be - ti joa-
te - ko u - rru-ti - ra
1.
2. rit.
zer-gai-tik zer-gai - tik zer-gai - tik zer - gai-
A TEMPO
tik zer-gai-tik ne-gar e - gi - in
ze - ru- an i - za - rra da - go
i - tsa - so al - de - tik





Sehaskan


J. Brahms





Ontzi txikia




1. 2. 3.





FA # SIb SOL# DO# FA #



Zorionak zuri

Mildred J. Hill



Zo-ri - o - nak zu - ri zo-ri - o - nak zu
ri zo-ri - o - nak (- - - - -) zo-ri - o - nak be
ti

Pintto

Pin - tto pin - tto gu-re txa-ku rra da ta
Pin - tto pin - tto be-re i ze- na
du txu-ri bel-tza da ta ez du kox-ka e-
gi - ten be-gi bat is - ten du jo - las-tu nahi ba
du






Ama begira zazu

A - ma be - gi - ra za zu lei - o - tik pla - za -
Ni be - ze - la - ko - ri - kan pla - zan bai o - te

1. ra da? 2. trai lai lai lai tra

la-ra la- ra la





Oh Susana

Foster






The musical score consists of five staves of music in 2/4 time, written in G major (one flat). The first staff begins with a treble clef and a 2/4 time signature. The melody is written in a simple, folk-like style. The second staff continues the melody. The third staff contains two endings: the first ending is marked '1.' and the second ending is marked '2.'. The fourth and fifth staves complete the piece with a final cadence.






Maria Solt eta Kastero

Benito Lertxundi





Maria Solt eta Kastero bi amoros zahar bero.
Hirurogei-hamarna urtetan hartü die amorio
Kastero jelostü gero Maria Solt ezari kanpo.

Maria Solt dua nigarrez izorra dela beldürrez.
Barnets-bordako anderiak kontsolatü du elez
emazte zaharrik oküpü agitzen eztela ez.

Maria Solt-ek arrapostü santa Elisabet badüzü.
Saintu zahar bateganik oküpü agitü düzü
Kastero ere bada saintü, hala nizan beldür nüzü.


Kastero eztüzü saintü sobera bürhaüti düzü.
Elizalat juan eta taharnan egoiten düzü
Kastero denagatik saintü Maria Solt antzü zira zü.





Amaren besoetan

Sorotan Bele



I

Oinez zelai berdean
itsaso bazterrean
gailurrak ditut maite
eta kresal usaina.

III


Euskal Herri osoko
mendi guztietan
etxean aurkitzen naiz,
amaren besoetan.

II

Itsas bazterreko
ur gazi bustietan
garbitzen dut arima
ametsez betea.

IV


Lurrean etzanda
goruntz begira
ni ohartzen naiz
zu maite zaitudala.



Txuriko



Txomin Artola



1

Gu gazte ginadela txalupa guztiek
zakurtxo bat ohi zuten ontzi barreanean,
begi erne abila, ez zen zaunkaria
ihes zihoan arraia harrapatzailea.

2

Seme esango dizut nola gertatzen zen
punittutako arraia, suelto batzuetan
legatzak ospa ihes txakurra jauzten zen,
ta bet-betan arraia hartzen zuen hortzetan.

3

Lana horren saria, "txakurren partia"
deitzen genion guztiok, ongi merezia,
maitea-maitea zen, txakur ehiztaria,
txalupa betetzen zuen anima gabeak.

4

Unea etorri da zuri kontatzeko
zer nolako txakurra zen gure "Txuriko",
uhin izugarriak ez zuen izutuko,
arraia utzi baino, lehenago itoko.

5

Goiz itsusi batean ez naiz ez ahaztuko,
bere lana beteaz jauzi zen "Txuriko",
baga haundi artean, ehiza ez utziko,
legatz haundi batekin ito zen betiko.





Astoa ikusi nuen

Herrikoia



1

Astoa ikusi nuen betaurrekoekin
buruan txapela eta gabardinarekin
ile luzea eta bigotearekin
hizketan egon nintzen atzo berarekin.

4

Astoa etorri zen hurrengo goizean
jantzi polit bat zeukan jantzirik soinean
maixuak esan zion eseri lurrean
astotxo ez baitzera kabitzen mahaiean

2

Astoak esan zidan triste zegoela
oso zatarra zela bere ikastola
berak zure gelara etorri nahi zuela
gure artean ondo konponduko zela.

5

Hondartzako eguna iritsi zenean
astoa portero eta denak futbolean
baloi batek jo zuen astoa buruan
lurrera erori zen hiltzeko zorian.

3

Baietz esan nion nik lasai etortzeko
arkatza eta bloka dendan erosteko
astoa izan arren trankil egoteko
asko ikasi eta txintxo portatzeko.


6

Azkar deitu zioten sendagileari
baita Donostiako anbulantziari
orain klinikan dagon asto gaixoari
esan nahi genioke "lehen bait lehen etorri".

Ardoa edanda



Herrikoia



Ar-do-a e - dan - da moz-kor-tzen naiz



pi - pa e - rre - ta txo-ra - tzen naiz



kor-te - ja - tzi - an lo-tsa-tzen naiz



No-la de - mon-tre bi - zi - ko naiz







Salamankara

Herrikoia

Begira ezazu arretaz lehenengo pentagraman egin duguna. Bigarren ahotsa jarri dugu hiru nota beherago kontatuz. Egin ezazu zuk gauza bera abesti osoan eta ikusiko duzu zein doinu polita ateratzen zaizun.




Txiki txikitatik aitag eta amak fraile ninduten nonbratu,
bai eta ere Salamankarat, istudiante bidaldu,
Salamankarat nindoalarik bidean nuen pentsatu.
Istudiente tunante baino hobe nuela ezkondu.

Ostatu xume polit batean gosez gelditu bainintzen,
nexka xarmant bat ari zitzaitan mahainean zerbitzatzen,
begi kartsu, ezpaina lore, enekin aise mintzatzen,
aingeru hori ordu berean ene bihotzian sartu zen.

Hitz erdi batez maite nuela erran nion beharrira,
baina gaixoa, herabetua, ihesi joan zen kanpora.
"Ez ahal nuzu, izar ederra, kondenatzen ifernura,
ez da sekulan ene gogotik histuko zure itxura".







Jainko mateak egin banindu zeruetako giltzari,
azken orduan jakingo nuen atea nori ireki;
lehenik aitari, gero amari, gero anai-arrebari,
t'azken orduan isil isilik ene maite politari.





Iluntzean

Maixa eta Ixiar






1

Ilargia urtean murgildu da, itsas arrain txikien artera
uraren hozkirriaren zirrara, hondar epelaren alboan...
iluntzean uraren ertzean, errainu baten argia
ene maite biok jolasean, olatu zipristin artean.

2








Haizeak ximurtu du itsasoa, kresalak lehortu malkoa
maite zure zain hementxe nauzkazu, izar goiztiarrei begira...
iluntzean uraren ertzean, errainu baten argia
ene maite biok jolasean, olatu zipristin artean (BIS)





Arratsalde honetan

Sorotan Bele





Itxaroten ari gera arratsalde honetan
zerbait aurkeztekoan jende honen aurrean.

Hemendik ateratzeko kanta berri baten bat
zuek ez aspertzeko arratsalde honetan
honetan, honetan, honetan...

Laupabost akorde jota kitar zahar honekin
dantzatzeko doinua ez dugu besterik.

Bi laguneko koadrila izerdi patsetan
nahikoa izango dira arratsalde honetan
honetan, honetan, honetan...


Taupadetan dut bihotza dirua galtzetan
dantza egiteko gogoia daramat zainetan.

Kitar bibolin doinuak jarraituz badaukat
dibertitzeko gaia arratsalde honetan
honetan, honetan, honetan...





Azken agurra



Az - ken a - gu - rren ga - ra -




ia o - rain duk a - na - ia



es - ku - tik lo - tu - rik kan -




ta de - za - gun go - go - tik



be - rriz i - ku - si - ko gai -




tuk jain - ko - ak nahi ba - du



mai - ta - su - nez be - sar - ka -







tuz a - gur a - gur a - gur



Maitiak galde egin zautan



Herrikoia




Maitiak galde egin zautan polita nintzanez (BIS)
polit, polit nintzela, baina larrua beltz, larrua beltz.








Maitiak galde egin zautan premu nintzanez (BIS)
premu, premu nintzela, baina etxerik ez, etxerik ez.

Maitiak galde egin zautan boltsa banuenez (BIS)
poltsa, poltsa banuela, baina dirurik ez, dirurik ez.

Maitiak galde egin zautan lana banuenez (BIS)
lana, lana banuela, baina gogorik ez, gogorik ez.

Gaixoa, hil behar dugu guk biok gosez (BIS)
gosez, gosez hil behar, baina elkar maitez! elkar maitez!






MI

FA

SOL




LA



Haurtxo polita



G. Olaizola



Haurtxo polita seaskan dago, zapi xuritan txit bero (BIS)
amonak dio, ene potxolo, arren egin lo, lo, lo, lo.
Horregatik ba, ene potxolo, arren egin lo, lo lo, lo.









Txakur handia etorriko da, zuk ez badezu egiten lo (BIS)
amonak dio, ene potxolo, arren egin lo, lo, lo, lo.
Horregatik ba, ene potxolo, arren egin lo, lo, lo, lo.





Aitorren hizkuntz zaharra

Herrikoia






Aitorren hizkuntz zaharra nahi degu zabaldu
munduaren aurrean gizonki azaldu,
baldin gure zainetan odolik badegu
euskaldunok euskaraz hitz egin behar degu.




Zein hizkuntza ederra euskara guria
inun ez det aurkitzen beste bat hobia,
usain goxodun hizkuntz txukun eta argia,
biraorikan ez duan hizketa garbia.


gora euskara maitea zoragarriena
euskaldunen artean maitagarriena,
munduan sortu zanik hizkuntzik zaharrena,
gora eta gora euskaldunak eta gure euskara.






Maitte









Maitetxu itsasoan dago, itsaso ontzi batean
Maitetxu itsasoan dago, urrutirako bidean (BIS)
Maite, Maite, ez neri utzi hemen kaiean
Maite, Maite, zu nere bihotzean (BIS)
Maitetxu noiz etorriko da, nire bihotza zai dago
Maitetxu noiz etorriko da, biok elkar bizitzeko (BIS)
Maite, Maite, ez neri utzi hemen kaiean
Maite, Maite, zu nere bihotzean (BIS)





Festarik festa

F. Jimenez/Tapia eta Leturia





Nahiz gauza asko ezagutu munduan
bada zertxobait ta hartu nahi dut kontuan
ez dakit nola esplikatu kantuan
neskatxa bat dut hemen nere onduan.


Gure bizitza juerga eta parranda
gero egunez lo egiten dugu etzanda
horren errudun etsaien bat izan da
gu nun gabiltzan seguru bera han da.

Festarik festa lan egin behar gauero
festarik festa hor nabil ni egunero
gure etsaia benetan dago ero
zigortzen gaitu inoiz hutsegin ezkerro.

Aizu neskaxa ba al dakizu benetan
norekin hasi zeran hartu emanetan?
Hau da egia zihur zaude horretan
bihurtu leike maitasuna penetan.

Konplikazio ainitz bada gurekin
bizitza honi ezin diogu aldegin
nere aukera ez bazaizu atsegin
gure artekoa beharko da desegin

Festarik festa...





Hegoak ebaki banizkion


Mikel Laboa




He - go - ak e - ba - ki ba - niz - ki -




on ne - ri - a i - zan - go




zen ez zu - en al - de - gin -




go bai - na



ho - rre - la ez zen gehi




a - go txo - ri - a i - zan - go



e - ta nik txo - ri - a nu -








en mai - te e - ta nik







Euskal Herrian euskaraz

Oskorri





Euskal Herrian euskaraz nahi dugu hitz eta jolas,
lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz,
bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo irabaz.
Zabal bideak eta aireak gure hizkuntzak har dezan arnas,
bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara hitz egiterik ez bada,
bota dezagun demokrazia zerri askara,
geure arima hiltzen uzteko bezain odolgalduak ez gara.
Hizkuntza gabe esaidazue nola irtengo naizen plazara,
geure arima hiltzen uzteko bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna irabazteko eguna,
pazientzia erre aurretik behar duguna;
ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?
Zer Euskal Herri litzake bere hizkuntza ere galtzen duena.
Ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?





Bat-bi-hiru-lau/Txapeldunak

Herrikoia

Bat bi hi - ru lau bat bi hi-ru lau
bost sei zaz - pi bost sei zaz - pi
eus - kal - du - nok i - ra - ba -
zi i - ra - ba zi au-rre ra txa-pel-
du - nak txa-pel - du - nak o -
e o - e o - e txa-pel-
du - nak txa-pel - du - nak o -
e o - e o - e


Nire aitak amari

Herrikoia



Nire aitak amari
gona gorria ekarri.
Nire aitak amari
gona gorria ekarri.
Berriz ere maiteko dio
nire amak aitari.
Nire aitak amari
gona gorria ekarri.

Gona gorri gorria
zazpi jostunek josia.
Gona gorri gorria
zazpi jostunek josia.
Berriz ere maiteko dio
nire amak aitari.
Nire aitak amari
gona gorria ekarri.





Andre Maddalen



Herrikoia

Begira ezazu arretaz lehenengo pentagraman egin duguna. Bigarren ahotsa jarri dugu hiru nota beherago kontatuz. Egin ezazu zuk gauza bera abesti osoan eta ikusiko duzu zein doinu polita ateratzen zaizun.



Andre Maddalen, Andre Maddalen, laurden erdi bat olio,
aitak saria ekarri zian, amak ordainduko dio

Amak ez badio "ordaindutzen", aitag ordainduko dio,
aitak ez badio ordaindu nahi, hor konpon eta adio!





Gizon arruntaren koplak

Xabier Lete

The musical score consists of six staves of music. Each staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 3/4 time signature. The music is written in a simple, accessible style, likely intended for a beginner or intermediate guitarist. The notation includes various note values, rests, and articulation marks such as slurs and accents.



1

Kantatzera noazu bertso bat edo bi,
herenegun jarriak gizon arruntari
Antonio Lorentxo edo Joxe Mari,
gauza ederra denik ez ukatu neri (BIS)

2

Goizean jaikitzean lehenbiziko gauza
ahoa zabaldu eta jazten ditu galtzak
muturra garbitzean nolako zalantzak
ezin kendurik nabil loaren orratzak (BIS)

3

Kafesnia hartuta horrekin batera
ahal baldin badet behintzat noa komunera,
aurrian papera eta atzian papera
periodikua letuz ilustratzen gera (BIS)

4

Etxetikan lanera noa nahiko mantso
realak "kuatro-uno" galdu zuen atzo,
kalian bi zakur ta beste hiru atso,
egun on don Pepito eta don Alfonso (BIS)

5

Gauzak gaizki dabilta hau da komeria,
Afganistanen gerra piztu zuten ia,
tokatzen baldin bazait aurten loteria
erosi beharko det Mercedes berria,
ongi egon omen zen Tolosan feria.

6

Ongi ikasi nuen gaztetan baltzian
karterari kontutzen txamarra galtzian
Artxandako haizeak beruak baitzian
ederki egoten zen ohiaren gainean (BIS)

7

Ni lana egina nazi semiak hazteko
haiek eskola ona xuxen ikasteko
ikasi eta gero lanian hasteko
ez ditezela izan bazterrak nahasteko (BIS)

8


Semeen semetatik baidatoz semiak
batzuek arrak eta bestiak emiak
batzuek lodiak ta beste batzuk meheak
horrela jarri zuen jaunaren legeak (BIS)

9

Gaurko eguna ere bota dugu bada
gizon okupatua gauza ederra da.
Asko gustatzen bazait oiluaren salda
Mugairen hasten baita Belateko malda (BIS)

10




Ez naiz ni gizon txarra baina zer arraio
Fidel Castro izateko ez bainintzan jaio
musean egiten det makina bat saio
andrearen onduan afaldu det iaio
orain ohera noa bihar arte aio! (BIS)








Maritxu I

Herrikoia



Maritxu II


Herrikoia



Maritxu nora zoaz
eder galant hori?
Iturrira Bartolo
nahi badezu etorri?
Iturrian zer dago?
Ardotxo txuria
biok edango degu
nahi dezun guzia.

Maritxu zuregana
biltzen naizenian,
poza nabaitutzen det
nere barrenian.
Bartolo, nik ere det
atsegin hartutzen,
ur-bila nuahean
banauzu laguntzen.



Maritxu baldin asmo
badezu ezkontzia
lehendabiziko nitaz
oroitu zaitia.
Zure mende jartzen naiz
denbora guziko,
Bartolorekin gaizki
etzera biziko.





Baliaren bertsoak

Benito Lertxundi





1

Mila bederatzirehun da lehenengo urtean,
maiatzaren hamalagarren egunian,
Orioko herriko barraren aurrian,
balea agertu zen beatzik aldian.

2

Haundia bazan ere azkarra ibilian,
buelbaka han zebilen juan da etorrian,
hondarra arrotuaz murgil igerian,
zorriak zeuzkan eta haiek bota nahian.

3

Ikusi zutenian ala zebilela,
beriala joan ziren treñeruen bila:
arpoi ta dinamitak eta soka bila,
aguro ekartzeko etzan jende ila.

4

Bost treñero joan ziren patroï banarekin,
mutil bizkor bikainak guztiz onarekin,
Manuel Olaizola eta Loidirekin,
Uranga, Atxaga ta Manterolarekin.

5

Baliak egindako salto eta marrubak,
ziran izugarri eta ikaratzekuak
atzera egin gabe hango arrizkubak,
arpoiakin il zuten, han ziran hangoak.

6

Bost txalupa jiranda erdian balia,
gizonak egin zuten bai nahiko pelia:
ikusi zutenian ila edo itoa,
legorretikan bazan biba eta txaloa.

7



Hamabi metro luze gerria hamar lodi,
buztan pala lau zabal albueta pala bi:
espainetan bizarrak beste ilera bi,
orraziak bezala hain zeuzkan ederki.

8

Gorputzez zan mila eta berreun arrua,
beste berreun mingain eta tripa
barrua:
gutxi janaz etzegon batere galdua,
tinako sei pesetan izan zen saldua

9

Gertatuba jarri det egiaren alde,
hau horrela ez bada jendiari galde:
bihotzez pozturikan atsegintsu gaude,
gora oriotarrak esan beldur gabe.





Agur jaunak

Herrikoia

A-gur jau - nak jau - nak a - gur
a - gur t'er - di da-nak jain - ko - ak
i - ñak gi - re zu - ek e - ta
bai gu e - re a - gur jau - nak a - a -
gur a - gur t'er - di he - men gi
re a - gur jau - nak

When the saints go marching in




Louis Amstrong

Oh, when the saints go mar- ching in

Oh, when the saints go mar- ching in

oh, i want to be in that num-ber




When the saints go mar - ching in





Nere herriko neskatxa maite

Benito Lertxundi






Nere herriko neskatxa maite
ahozko lorez zaitut gaur laztantzen
itsaso garden, lur gozoko landare,
kresalaren usain, zeru kolore
nere bihotzaren taupaden hotsez
zure grazia dut kantatzen.

Bihotz minberen egunsentia
herri sufrituaren lamia
ipuin zaharren piper eta ezta
erreka garbien kantu bitxia
udazken lizunez zaude jantzia
izar zerutarren irria.

Lanbro artetik itsas geldira
lehunki zoazen txori airosa
amodiozko sentipenaren hatsa
zure ezpainenetan loratuz doa
goizeko ihintzetan belardi zera
eguzkitan zilar dizdira.





Agure zaharra

Llach/Lete/Knorr

Musical score for 'Agure zaharra' in 3/4 time, featuring a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The score consists of eight staves of music. The first staff begins with a treble clef, a 3/4 time signature, and a key signature of one sharp (F#). The melody is written on a single staff. The second staff continues the melody with a slur over the final two notes. The third staff continues the melody. The fourth staff is marked with a first ending bracket and a '1.' above it, ending with a double bar line and repeat dots. The fifth staff is marked with a third ending bracket and a '3.' above it, ending with a double bar line and repeat dots. The sixth staff begins with a repeat sign and contains two measures with a sharp sign. The seventh staff continues the melody with a sharp sign. The eighth staff concludes the piece with a final note and a fermata.



Agure zahar batek zion bere etxe aurrean
goizean goiz lantokira irtetzen nintzanean.
Ez ahal duk gazte ikusten gure esola zein den
desegiten ez badugu bertan galduko gara.

Baina guztiok batera saiatu hura botatzera
usteltzen hasia dago eta laister eroriko da.
Hik bultza gogor hortikan eta bultza nik hemendikan
ikusiko duk nola nola laister eroriko den.

Baina denbora ba doa nekea zaigu hasi,
eskuak zartatu zaizkit eta indarrak utzi.
Usteltzen badago ere karga badu oraindik
berriz arnasa hartzeko esaigun alkarrekin.

Agure zaharra falta da gure etxe ondotik,
haize txar batek hartuta eramán du hemendik.
Haur batzuk ikusten ditut eta inguraturik
aitona zaharraren kanta nahi dut erakutsi.





Kan-kan

Offenbach

Musical notation for 'Kan-kan' by Offenbach, consisting of four staves of music in G major and 3/4 time.

Zapi txuria

Herrikoia

Musical notation for 'Zapi txuria' by Herrikoia, including lyrics in Basque.

Za-pi txu-ri ho-ne - kin jo - las - ten ga - ra
o-rain al-de ba-te - ra ge - ro bes-te - ra






za-pi txu-ri-a au-rre - ra za-pi txu-ri- a a-tze - ra

za-pi txu-ri ho-ne - kin jo- las- ten ga - ra



Minuetto 1







J.S. Bach







Egun da Santimamiña

Herrikoia





Egun da Santimamiña, benetan egun samiña,
goiko zeruan gorde dezala, luzaro geure arima. (BIS)

1

Errekaldian lizarra, hari begira izarra;
euskara salbo ikusi arte, ez dut moztuko bizarra.

2

Gaur egun nago itzarrik, inon ote den izarrik;
Euskal Herria askatu arte, ez dut moztuko bizarrik.

3

Zu neska bizar gabeko, egizu promes betiko;
bizarra mozten duen gizonik, ez duzula inoiz maiteko.





Eperra

Herrikoia

I

II

I

II

I

II

I

II



I

II

Eperrak baditutzü bere bi hegalak
bai eta bürü gainin kokarda eijer bat
zük ere balinbazünü gaztetasün eijer bat
neskatilen gogatzeko bilho hori polit bat.

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe
gaüz ebiltia ez üken herabe
egünaz ebiltia desohore leike
txoriak ere oro haier soz dirade.

Ebili izan nüzü gaüz eta beti
eia atzemanen nianez lili eijer hori
azkenean atzeman düt oi! bena tristeki
lümarik eijerrena beit zaio erori.

Mündian ez da nihur penarik gabe bizi
nik ere badit aski hoitan segürki
nik desideratzen nizün ezkontzia zureki
bena ene aitak ez dü entzün nahi hori.




Zure aitak zer lüke eni erraiteko
ala enitzaio aski haren ofizioko
ala zü soberaxe zitzaio enetako
printzerik ez ahal da orai zuen ganako.







Bagare

Herrikoia






Araban bagare Gipuzkun bagera Ziberun bagire
eta Bizkaian bagara, baita ere Lapurdi eta Nafarran.

Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara
nahiz eta hitz ezberdinez bat bera dugu hizkera.



GUZTIOK EUSKALDUNAK








Isiltasunaren doinuak

Simon eta Garfunkel










Aldapeko

Herrikoia



1


Aldapeko sagarraren adarraren puntan, puntaren puntan,
txoria zegoen kantari.
Txiruliruli, txiruliruli. Nork kantatuko ote du soinutxo hori?

2

Zuriburu zelaieko oihanaren zolan, zolaren zolan,
lili bat bada beilari!
Txiruliruli, txiruliruli. Nork kantatuko ote du lili xarmant hori?

3

Mende huntan jasan dudan bihotzeko pena, penaren pena,
nola behar dut ekarri?
Txiruliruli, txiruliruli. Zuk, maitea, har ezazu ene pena hori!





Markesaren alaba

Herrikoia

The musical score consists of eight staves of music. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 3/4 time signature. The melody is primarily composed of quarter notes and eighth notes, often beamed in pairs. Chords are indicated by vertical stems with dots. The piece concludes with a double bar line and repeat dots.



1

Zeruak eta lurrak, egin zituena,
memoria argitzera, hatoz niregana.
Esperantza badaukat, zehorrek emana,
kunplitzeko dudala, desio dedana.

2

Markesaren alaba, interesatua,
mariñeruarekin, enamoratua.
Deskubritu gaberik, bere sekretua,
amorio zeukan, barrena sartua.

3

Ala disponiturik, jarri ziran biak,
kartaz entenditzeko, elkarren berriak.
Formalidadiakin, jartzeko egiak,
baina etziren lo egon, amaren begiak.

4


Amak esaten dio: -Juanita neria
galdu da diotenez, Antonio Maria.
Nik bilatuko dizut, beste bat hobia,
mayorazgo interes, askoren jabia.

5

Hau da lendabiziko esan zenduana:
-zer da musikarekin onratzen dutena?
-Markesaren alaba kalia barrena,
esposario zela hark behar zuena.

6

Penarekin lerturik, Antonio hiltzan,
akonpañatu zuen Juanitak eleizan.
Maitasuna bazion, esan dedan gisan
geroztikan etzuen, osasunik izan.





Ardi txuriak

